



# 948 MERKATUA

NAFARROAKO ARTEEN MERKATUA ETA  
TOPAKETA PROFESIOALEN FOROA

IRUÑA/PAMPLONA/PAMPELUNE  
NAFARROA/NAVARRA/NAVARRRE

20.21.22 AZA. 2019  
NOV.



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra

# Aurkibidea

- 4 ..... ZER DA 948 MERKATUA?
- 6 ..... 948 PRO
- 7 ..... EZTABAIDA - TAILERRAK
- 8 ..... HITZALDIAK
- 9 ..... CONECTA ART
- 10 ..... NAFARROAKO SORKUNTZAREN LEIHOA
- 11 ..... PROIEKTUAK
- 14 ..... STANDAK
- 17 ..... 948 ART

ARGITARATZAILEA:

**Nafarroako Gobernua.** Kultura eta Kirol Departamentua.  
Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeak  
Lege-Gordailua: NA 2563-2019

# 948 MERKATUA

NAFARROAKO ARTEEN MERKATUA ETA TOPAKETA PROFESIOALEN FOROA

## Ongietorria

Ongi etorria, hemen duzu **948 Merkatuaren** azken edizioa, **diziplinarteko sorkuntzaren** aldeko apustu sendo bat, tokiko mailatik maila globalera, **elkarrizketa eta truke eta aberastasun kulturala eta profesionala** sortzea helburu duena **Nafarroako Gobernuaren** bultzadarekin. 948 Merkatuaren lehen gaia da **Nafarroako sorkuntza sektorea babestea eta nabarmentzea.**

948 Merkatua aukera bat da ezaguerak zabaltzeko, elkartzeko, ezagunekin eta ezezagunekin konektatzeko... Azken batean, aukera bat **kultura sortzeko: kultura hobe bat, berrikuntza artistikora eta kulturalera** bideratuta.

Zentzu horretan, arteen eta kulturaren munduaren motorra **sormena** da. Eta horregatik, 948 Merkatuak berrikuntza horren parte bat erakusgai jarriko du, fokua **Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko** proposamenetan jarrita, eskualde hori lehenengo ediziotik ari baita programari babesa ematen.

Era berean, **948 Merkatuak** konplizitatea sortzen jarraituko du gertuko lurraldeekin: **Euskadi, Akitania Berria, Errioxa eta Aragoirekin**, hain zuen. Eta gainera, aukera zabalagoen bila, **Estatuko eta nazioarteko** artistak eta profesionalak ere bilduko ditu.

Egitekoz betetako hiru egun emankor gelditzen zaizkigu aurretik; sorkuntza artistikoaren eta kulturalaren gaurkotasuna ezagutu ahalko dugu hiru egunez, jarduera profesionalen programazio zehatz batekin (**948 PRO**) eta kalitate handiko erakustaldi artistiko berritzaileen programa batekin (**948 ART**).

Dena prest dago. 948 esperientziaz gozatzea baino ez da falta.



# ZER DA 948 MERKATUA

Asteazkena 20 | 13:00ean.

**INAUGURAZIO  
OFIZIALA**

BALUARTE. Behe solairua  
Kultura standa

## DIZIPLINARTEKOTASUNA ETA ANIZTASUNA


948 Merkatuaren hirugarren edizioa berrituta dator, eta **berezitasun** gisa, **diziplinartekotasunaren aldeko apustua** egin du; artisten eta kulturaren arloko profesionalen arteko **topagunea** izan nahi du, **diziplina artistikoen arteko elkarrizketa** bultzatzeko.

Horrela, gaur egungo **sorkuntza artistiko eta kultural berritzaileenak** ernetzen diren lekura irten ahalko gara, eta jakingo dugu zer gertatzen den estilo, diziplina eta ortodoxietatik haratago.

## 948 PRO

948 Merkatuak **foro profesional eta dinamiko bat eskainiko du, networking eta prestakuntza**

**edukiekin**, sorkuntza eta arte diziplina guztiei lekua emanez. Kalitateak, berrikuntzak eta gaur egungo lengoaietik bat egingo dute eztabaida, hitzaldi, tailer, networkingeko ekintza eta proiektuen aurkezpenez osatutako programazio batean. PRO programazioko berritasunen artean, hauek azpimarratuko ditugu:



## 948 PRO BERRIKUNTZAK

- ▶ **NAFARROAKO SORKUNTZAREN LEIHOA:**  
gure mugetatik haratago zabaltzeko hoberen prestatuta dauden proiektu artistikoetako batzuen erakusleihoa.
- ▶ **CONECTA ART:**  
Nafarroaz kanpoko profesionalen eta bertako agente kultural eta artistikoen arteko topagunea.
- ▶ **KULTURA PROIEKTUEN AURKEZPENA:**  
Estatu mailako deialdi irekia, besteak beste kultura-gizartea, kultura-berrikuntza eta kultura-jasangarritasuna binomioak uztartzen dituzten kultura proiektu onenak aintzat hartzea helburu duena.

Kalitate  
azpimarragarria eta  
diziplinarteko izaera  
argia duten

**32**

**PROPOSAMEN  
ARTISTIKO**

## 948 ART

→ Hori da batzorde artistiko batek egindako hautaketa lan zainduaren emaitza, ekimenak batuz, oreka bilatuz eta elkarriketa baliatuz taldean egindako lanaren emaitza.

### 948 ART ERAKUSTALDIAK

- ▶ Nafarroako sorkuntza artistiko erakargarri, iradokitzaile eta berriena.
- ▶ Estatuko eta nazioarteko proposamen berritzaileak.
- ▶ Tokiko mailatik nazioarteko mailara.

948 ARTek **gizarteko gaiak eta kezak** bildu eta profesionalen eta herritarren aurrean jarriko ditu, haien iritzia ezagutzeko. Artistek hainbat gai dituzte aztergai haien lanetan, besteak beste genero berdintasuna, lurralde eta kultura oreka edo ingurumenaren errespetua, eta gai horiek ikusleengana helarazi nahi dituzte, proposamenen kalitate plastikoa edo formala alde batera utzi gabe.



**948 Merkatua PRO** sailerako akreditazioa eskuratu duten profesionalak gure **app**-aren erabiltzaileak izan daitezke. Nafarroako Arteen Merkatuan bilduko den eskaeraren eta eskaintzaren arteko bide bat da, eta tresna horri esker, baliabide aunitz jarri ditugu profesionalen zerbitzurako:

**948 Merkatua PRO**

Ostirala 22 | 14:00ean.



**AMAIERA OFIZIALA**

BALUARTE. Behe solairua  
Kultura standa



# 948 PRO

**948 PRO**REN BAITAN, PARTE HARTZAILE AKREDITATUEI ZUZENDUTAKO **JARDUERAK** BILDUKO DIRA, DAGOKIEN EREMUAN ERREFERENTZIA DIREN PROFESIONALEKIN ESPERIENTZIAK PARTEKATZEKO HELBURUAREKIN.

## EZTABAIDA

Ideiak kontrastatuz, diziplinartekotasunaren funtsean sakonduko da topaketa honetan.



Aldibereko itzulpena euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

## PRESTAKUNTZA TAILERRAK

Entzute handiko adituek emandako tailerrak izango dira, eta ikaskuntza praktikoak eta eraginkorrak lortzera bideratuta egonen dira.

## HITZALDIAK

Kulturaren arloko profesionalak 21 hitzaldi egingo dituzte, hibridazioaren inguruko kultura esperientziak ezagutzera emateko.



Aldibereko itzulpena euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

## CONECTA ART

Nafarroako sektore artistikoa eta kulturala Estatuko eta nazioarteko profesionalekin harremanetan jartzeko topagunea.

## NAFARROAKO SORKUNTZAREN LEIHOA

Estatuan nahiz nazioartean proiektzioa duten nafar artisten bederatzi proposamen aurkeztuko dira 948 Merkatuko ikusleen aurrean.

## PROIEKTUEN AURKEZPENA

Bederatzi proiektu lehiatuko dira bikaintasun sariak lortzearren, aurkezpen formatu dinamiko eta erakargarri bat baliatuz, Antonella Brogliak dinamizatuta.

## STANDK

Baluarteko korridoreetan kulturaren arloko erakunde publiko, enpresa eta elkarteen informaziorako stand profesionalak jarriko dira berriz ere.

## NETWORKING ETA B2B BILERAK

Networkinga sustatzeko, hitzorduak egiteko eta merkataritza sinergiak sortzeko espazio eta gailu berriak.



BALUARTE. Ganbera Aretoa

ASTEAZKENA. AZA. 20

9:30-11:00ean

"Bistakoenetik haratago: diziplinarteko-tasuna"

**María Ptqk.** ARTE KOMISARIOA, KRITIKARIA, ANALISTA

**Maral Kecejian.** VERANOS DE LA VILLA

**Juan Pablo Ordúñez / Mawatres.** ARTISTA, BILBAO ART DISTRICT

Moderatzaile: **Mónica Zas.** ELDIARIO.ES

Diziplinartekotasunak bere egiten ditu artisten eta sortzaileen sorkuntza motorrak. Gaur, inoiz baino gehiago, diziplinartekotasunetik sortzen da, hibridaziotik, heterogeneotasunetik.

Baina, **zer da diziplinartekotasuna?** Ziur asko ez dago definizio argirik, eta kulturaren arloan, ia dena bezala, eztabaidagarria da eta ñabardura asko daude. Lehen eztabaida bat proposatuko dugu hemen, kontzeptu hori garbitu eta muga batzuk jartzen saiatzeko, 2019ko 948 Merkatuaren programazioa diziplinartekotasunean oinarrituta baitago.



# 948 PRO

HITZALDIAK, EZTABAIDAK, PROIEKTU AURKEZPENAK, STANDAK, PRESTAKUNTZA ETA NETWORKING.

Baluarte Biltzar Jauregian.

Goizez, azaroaren 20, 21 eta 22an.

Izena eman duten profesional guztientzat.

## TAILERRAK

Entzute handiko adituek emandako lau tailer egingo dira, eta kulturaren profesionalentzat goren mailako garrantzia duten gaietan **ikaskuntza praktikoak eta eraginkorrak** eskuratuzera bideratuta egonen dira.

BALUARTE (-1 solairua)

OSTIRALA. AZA. 22

9:30ean

SALA GOLA

"Lan artistikoaren hedapena azoka kulturaletan"

**Marta Oliveres**

MÁNAGER CREATIVA Y DESARROLLO INTERNACIONAL

SALA CORONA

"Diziplinarteko praktika kultural eta artistikoaren hurbilketa juridikoak"

**Patricia Gabeiras**

GABEIRAS Y ASOCIADOS

12:00ean

SALA GOLA

"Inpaktuko aurkezpenak: nola hunkitu eta konbentzitu zure proiektuarekin"

**Lorena Silvestri**

TEDXYOUTH@MADRID

SALA CORONA

"Échanges d'expériences de gestion culturelle municipale entre Nouvelle-Aquitaine et Navarre"

**Christelle Mange - Nora Bengotxea**

COMMUNE MAULEON AYTO. ARANGUREN

Aldibereko itzulpena euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.



## ASTEAZKENA. AZA. 20

	SALA GOLA	SALA BULEVAR	SALA CORONA
11:30ean	<p>"La Fábrica De Gomas, topaleku bat"</p> <p><b>Alberto García</b> LA FÁBRICA DE GOMAS</p>	<p>"DNA SORKUNTZA 2019 Erakundeen apustu bat da sorkuntza artistikoa eta komunitateen garapena bultzatzeko"</p> <p><b>Natividad Buil</b> FESTIVAL DNA</p>	<p>"Papera eta ordenagailua, edo nola egin animaziozko film bat"</p> <p><b>César Cabañas - Mila García</b> DEMIRANDA STUDIO – SIMILARTE</p>
12:00ean	<p>"Arte eszenikoak museo batean? Nafarroako Unibertsitatea Museoa, berrikuntza eta berezitasuna"</p> <p><b>Teresa Lasheras</b> MUSEO UNIVERSIDAD DE NAVARRA</p>	<p>"Gizakia-makina bizikidetzaren narratibak"</p> <p><b>Karlos G. Liberal</b> BIKOLABS</p>	<p>"Champs Libres, kultura-aldizkaria Akitania Berriko landa-ingurunean"</p> <p><b>Sonia Moumen - Jean-Baptiste Béis</b> CHAMPS LIBRES</p>
12:30ean	<p>"D'A FILMS FESTIVAL Barcelona. Jaialdi baten 360 gradueta eta 365 egunetako erronkak"</p> <p><b>Carlos R. Ríos</b> NOUCINEMART / D'A FILM FESTIVAL BARCELONA</p>	<p>"#OholtzaraSaltoAEscena (gazteak dira protagonistak)"</p> <p><b>Ramoni López</b> RED DE TEATROS DE NAVARRA</p>	<p>"Kultur babesa, esanahi bila"</p> <p><b>Pepa Octavio</b> MUSEO THYSSSEN BORNEMISZA</p>

## OSTEGUNA. AZA. 21

	SALA GOLA	SALA BULEVAR	SALA CORONA
11:00ean	<p>"Arkitektura eta Diseinua, hiria eraldatzeko tresna gisa"</p> <p><b>Javier Peña</b> CONCÉNTRICO, FESTIVAL INTERNACIONAL DE DISEÑO Y ARQUITECTURA DE LOGROÑO</p>	<p>"Ondare kultural immaterialari eta jabetza intelektualari buruzko dekalogo"</p> <p><b>Conchi Cagide - Itziar Luri</b> ASOCIACIÓN INTANGIA – LABRIT PATRIMONIO - LABRIT ONDAREA</p>	<p>"Nazioartean mugitzeko gogo?" Sarrera eta gomendio praktikoak"</p> <p><b>Maïa Sert</b> ON THE MOVE</p>
11:30ean	<p>"El libro mutante"</p> <p><b>Ricardo Juárez</b> LIBROS MUTANTES / MADRID ART BOOK FAIR</p>	<p>"Artea, soinua eta digitala: praktika hibridoak eta erabilera berriak"</p> <p><b>Hélène Perret - Eddie Ladoire</b> UNENDLICHE STUDIO</p>	<p>"Lurraldera egokitzea: zeharkakotasuna, disidentzia eta arte biziak"</p> <p><b>Javier Cuevas</b> LABORATORIO DE ARTES VIVAS DE TENERIFE / DANCE-INTER-FACES</p>
12:00ean	<p>Musika turismoa "ESTACIONES SONORAS" jaialdiarekin</p> <p><b>Anselmo Pinilla</b> ESTACIONES SONORAS</p>	<p>"Carasso Fundazioa. Kultura filantropiaren laborategia"</p> <p><b>Carlos Almela</b> CARASSO FUNDAZIOA</p>	<p>"Berrikuntzarako estrategiak, sorkuntza espazioetatik abiatuta"</p> <p><b>Elena Carmona</b> GRANER / FESTIVAL SÁLMON</p>
12:30ean	<p>"Zure etxean ala nirean? Zinema eta dantza"</p> <p><b>Samuel Retortillo</b> PLATAFORMA FIVER</p>	<p>"Next Station: berrikuntza laborategia, euskarazko ikus-entzunezkoen formatu berrietarako"</p> <p><b>Arturo Cisneros</b> CLAVNA, AUDIOVISUAL CLUSTER OF NAVARRE</p>	<p>"Kultura 2030eko agendaren erronken aurrean"</p> <p><b>Grial Ibáñez de la Peña</b> MINISTERIO DE CULTURA</p>



BALUARTE. Behe solairua OSTEGUNA. AZA. 21. 13:00-14:00ean

948 PRO hitzaldietan, **Nafarroa inguruko, Estatuko eta nazioarteko berritasunak** ezagutzeko aukera izanen dugu bi goizez; ikasteko eta trukerako parada egokia. Tokiko mailatik nazioartera bitarteko profila duten hitzaldiak izango dira, eta hainbat gai jorratuko dituzte, hala nola kultura ondarea, zeharkakotasuna edo kultura ekintza ulertzeko modu berriak.

Funtsean, **ezinbesteko 21 hitzordu**, kultura eta sorkuntza sektorearen joera berrien arrasto garrantzitsuak ezagutzeko.

**Conecta Art** kultura arloko gure profesionaleri eskaintzen diegun beste gune bat da, **topagune bat Nafarroako sektore artistiko eta kulturalarentzat**.

Topagune horretan, Nafarroako profesionalak eta konpainiek harremanak egin eta lankidetzak zehatz ditzakete, ikuspegiak, esperientziak eta proposamenak partekatu, bai beren artean bai jatorri askotarikoko kudeatzaile kulturalekin.



**Conecta Art** egitasmoaren helburua da beste parte hartzaileekin biltzeko gune bat eskaintzea eta, horren bidez, **harreman profesionalak** indartzea, **negozio aukerak** sortzea, bezeroak bilatzea eta egun programatzen diren **proposamen kreatiboak** ezagutzera.



## BISITA GIDATUAK



**Arte plastiko eta bisualen aldeko laguntzak.** UHARTEKO ARTE GARAIDIDEAREN ZENTROAN

📍 Sala Muralla, Baluarte (-2 solairua)

🕒 Aza. 20 (asteazk.) eta 21 (osteg.) 12:00etan, eta 17:00etan, Aza. 22 (ostir.) 12:00etan



**Carlos Irijalba. Extemporáneo.** NAFARROAKO MUSEOKO KAPERAN INSTALATUA

📍 Nafarroako Museoa (Santo Domingo, 47, Iruña). Museo sarreran

🕒 Aza. 20 (asteazk.) 15:00etan



**Oteiza y la estatuaría de Arantzazu, 1950-1969.** OTEIZA MUSEOA

📍 Baluarte, akreditatze lekuan

🕒 Aza.21 (osteg.) 15:00etan

# NAFARROAKO SORKUNTZAREN LEIHOA

BALUARTE. Ganbera Aretoa

Nafarroako sortzaileek agertoki ezin hobea dute “Nafarroako sorkuntzaren leihoa” beren proiektu artistikoak aurkezteko 948 Merkatura hurbiltzen diren profesionali. Kudeatzaile kulturalak, programatzaileak, artistek eta erakundeak aukera dute bertatik bertara ezagutzeko **Nafarroako kultura sektorearen proposamenak**,

**formatu azkar eta arin batean**, proiektzio handia izan dezaketenak foru erkidegotik kanpo.

**Nafarroako bederatzi proiektu artistiko** aurkezten dira, hamar minutuko formatu dinamiko baten bidez. Proiektu bakoitza ezagutzeko eta egungo nafar sorkuntza zertan den jakiteko leiho txiki bat da.

OSTEGUNA. AZA. 21

9:30-11:00ean

<i>Herederos de Nadie</i> <b>Bastardix</b>	Originala eta atsegina izan nahi duen musika proposamen bat, gaurko panorama sozialaz eta politikoz euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.
<i>Catástrofe</i> <b>La Caja Teatro</b>	Lau aktorek hitz egingo digute, oraindik aukera duten leku bakarretik: fikzioak zeharkatutako niaren biluztasunetik. <i>Catástrofe</i> matrioshka bat da non istorio bakoitzean beste bat gordetzen den.
<i>De un verano trágico a perfecto</i> <b>Javier de Mabel &amp; Xu Pinghui</b>	Javier de Mabelek eta Xu Pinghui musika taldeak beren lehen diskoa aurkeztuko digute: “De un verano trágico a perfecto”, soinu elektrikoa eta lirismoz betetako hitzak biltzen dituzten hamar abestik osatutako lana.
<i>El Sexto Sentido</i> <b>Teatro A2 Compañía</b>	Sandra Iraizoz komunikatzaileak, Lola Rodríguez terapeutak eta Pedro Planillo musikariak antzerkia eta flamenkoa uztartzen dituen istorio bat aurkeztuko digute, genero indarkeriari buruz.
<i>¡Estás en Babia!</i> <b>Producciones Maestras</b>	Familia osoarentzako produkzio bat, zuzenean abestutako kanta originalekin, bideo-proiektzioekin eta eszenografian proiektatzen diren ilustrazio originalekin, obrako pertsonaiekin erlazionatuz.
<i>Hutsun Txalaparta-J.E.L Trio</i> <b>Hutsun Txalaparta - J.E.L Trio</b>	J.E.L. Trío (Javier López, Marcelo Escrich, Dani Lizarraga) eta Hutsun (Mikel Urrutia, Anai Gamba Uriz) kontzertu batekin datozkigu; tradizioa eta berrikuntza eskutik helduta, mitologia kutsuak dituen jazz erreperitorio batekin.
<i>Instantánea</i> <b>Alberto Rodríguez Purroy</b>	Alberto Rodríguez Purroyren bakarkako lehen diskoak, “Instantánea!” izenekoak, hamabi abesti berri dakartzkigu doinu poetikoa, begirada ironikoa eta moldaketa dotoreak uztartuz.
<i>"Julián Gayarre. La voz del paraíso" musikala</i> <b>Antzerki-musikala</b>	Bidaia bat, Nafarroako tenore handia ezagutzeko aktoreak, musikariak, dantzariak eta Iruñeko orfeioa bilduko dituen ikuskizun baten bidez.
<i>Un mar de fueguitos</i> <b>Fueguitos</b>	Eduardo Galeanoren izen bereko kontakizunean oinarritutako proiektua, giza sentimenduak eta adierazpenak lantzen dituena, marrazketaren eta eskulturaren bidez sortutako pertsonaien arteko konexioetatik abiatuta.

BALUARTE. Ganbera Aretoa



Antonella Broglia italiarra hiru hamarkadaz aritu da lanean publizitatearen eta marketinaren alorrean, eta **Saatchi & Saatchi-ren kontseilari delegatua Espainian** eta **Board Europarraren** kide izan da. **Infonomia** berrikuntza think tank-ren aholkularia izan da, eta **TEDxMadrid** eta **TEDxYouth@Madrid** antolatu ditu 9 urtez. Gaur egun TEDx programaren enbaxadore senior da.

**Ashoka España**-ren enbaxadorea ere bada, eta TVE2ko **“Para todos la 2”** saioaren kolaboratzailea. Kultura ekintzaileen plataformak eta arte eta kultura kudeaketarako eredu berriak sustatzen ditu. Gainera, aktorea da **“Theatre for the People”** egitasmoan eta public speaking alorreko prestatzailea.

948 Merkatua Proiektuak sortu zen finkatze bidean dauden edozein jatorritako proiektuei **zabaldutako deialdi** ireki batetik.

Egitasmo hartan aukeratu ziren **19 proiektuak** kudeaketa kulturalaren profesionalak gidatutako elkarrizketa txanda batera igaro ziren. **Horietatik hamabi**, berritzaileenak eta potentzial handienekoak, hurrengo fasera igaro dira, eta datorren **ostiralean** (azaroak 22) **aurkezpen publiko** bat egingo dute Baluarteren Ganbera Aretoan.

Proiektu bakoitzak **hamar minutu izango ditu bere proposamena azaltzeko**. Hori bai, ez dira zerotik hasiko. Denbora honetan, aukera izan dute harremanetan jartzeko **Antonella Broglia** Ashoka Spain eta TEDx Conferences-en enbaxadorearekin, enpresa komunikazioan eskarmentu handia duen profesionala, eszenaratze honen prestakuntzaren coach gisa. Gainera, ostiralean, Antonella Brogliak berak egingo ditu ekitaldiaren dinamizatzaile lanak.

Epaimahai batek baloratu egingo ditu proiektuen diziplinartekotasuna, edukien kalitatea eta bideragarritasua, hiru **kategorietan**:

- Kultura eta iraunkortasun ekonomikoa.
- Kultura eta gizartea.
- Kultura eta berrikuntza.

Irabazleek **1.500 euroko** diru laguntza jasoko dute.

OSTIRALA. AZA. 22. 11:00-13:00ean

**DES-ADARVE ARTE IRAGANKOR LEHIAKETA** [Des-Adarve Arte Iragankor Lehiaketa]

Antzinako hiri musulmanetan, adarbea irteerarik gabeko kalezuloa zen, etxeetara sarrera ematen zuena eta itxi zitekeena. Gaur egun, oraindik ere, Tuterako alde zaharreko kaleetan, horren egunerokoak eta aldi berean horren bereziak diren elementu hauen arrastoak irakur ditzakegu. “Des-Adarve”-k guztiei irekitako gunek bat izan nahi du eta parte-hartzearen eta arte iragankorraren sormenaren bidez hiria jarduera berriei hornitu, baita ondare arkitektonikoaren eta kulturaren garrantzia azpimarratu ere.



**DANCING THE YEARS** [Asociación Emovere]

“Dancing The Years” mugimendua eta zahartzea erdigunean dituen arte eta kultura proiektua da. Proiektuak Euskadiko eta Galesko (bi lurralde oso desberdinak) adineko pertsonen bi talde bildu nahi ditu, elkarrekin lan egina zahartzearekin zerikusia duten gaien inguruan sormena trukatzeko: Zeintzuk dira, gaur egun, zahartzearen eta zahartzaroaren beraren inguruan dauden sentimenduak? Zer antzekotasun eta desberdintasun sortzen dira hau aztertzeko elkartu diren bi kulturen artean?

[itxasodiaz.com/proyecto/dancingtheyears](https://itxasodiaz.com/proyecto/dancingtheyears)

**EL TRENICO** [Irantzu Lekue Madinabeitia]

Proiektu honek Tecnalía Research & Innovation zentroak eta Irantzu Lekue euskal artista garaikideak bultzatutako kreazio-prozesua islatzen du. Prozesuak artea eta teknologia-berrikuntza elkartzen ditu errealitate areagotuan muralak egiteko helburuarekin. Artea eta teknologia batzea da “El Trenico” proiektuaren xedea. Horretarako, Irantzu Lekue artistaren muralismo-proiektuei Tecnalía Research & Innovatiónek garatutako errealitate areagotua-errealitate mistoaren teknologia gehitzen die.

[iralekue.com](https://iralekue.com)

**OSASUN MENTALAREN ETA ARTEAREN PIRINIOETAKO JAIALDIA** [FESMAP]

“FESMAP” diziplina anitzeko topaketa da, interartistikoa eta dibulgaziokoa, eta artearen eta osasun mentalaren arteko topaketa eta bilera puntua izan nahi du. FESMAPEk osasun mentaleko arazoak tratatu nahi ditu arazo horien sorburuan dauden kausen zeharkakotasunetik abiatuta: deserrotzea, generoa, nortasuna, isolamendua, abandonua, beldurra, migrazioa. Jaialdiaren zeregina da proiektuak hedatzea eta nazioartekotzea lankidetzarako, erakusketarako eta trukerako sareak sortuz.

[www.fes-map.com](https://www.fes-map.com)

**FUGA. Exploraciones Sonoras** [FUGA. Exploraciones Sonoras]

FUGA” diziplinarteko egoitza artistikoen programa da. 2015. urtetik komunitateak garatzen ditu soinuaren inguruan artista, teknologo eta publikoaren artean hartu-emanak, topaketak, esperientziak eta pentsamenduak sortzeko. Sorkuntzarako gune gisa, musika garaikidearen alorrean eta artearen eta teknologiaren arteko harremanean, proiektuak estrategia iraunkorra du urte osoan zehar, publikoarekin orokorrean eta talde zehatzekin ere lan egiteko.

[fu-ga.es](https://fu-ga.es)

**GELTOKI** [Asociación Geltoki Iruña]

Proiektu honek hiri-artea eta Nafarroako kultura-ondarearen adierazpenak kontzeptu komun batekin elkartzen ditu: kalean egiten dira.

[www.geltoki.red](https://www.geltoki.red)

**IN-SPIRA-TU** [Mikel Artxanko eta Ioritz Lestón]

Gazteen sormena eta garapen pertsonala elkartzen dituen prozesu artistikoa. Sei diziplina artistikoren bidez, diziplina anitzeko heziketa- eta sorkuntza-prozesu bat burutuko da Berriozarko Kulturguneko aretoetan. Zailtasun sozialak dituzten 110 gazte bere zentroetatik Berriozarrera joango dira hiru hilabetetan zehar astero tailerrak egiteko eta, azkenean, diziplina anitzeko ekitaldi bat eszenaratzeko. Barañain Auditorioan egindako proiektua, “Crecer con Arte - Hazi Arte”, 2015. urtetik.

[www.auditoriobarainain.com/inart/proyectos/crecer-con-arte](https://www.auditoriobarainain.com/inart/proyectos/crecer-con-arte)



**KULTURISISTEMA** [Karraskan - Innovación en Cultura - Cultura de la Innovación]

**KULTURA- ETA-SORMEN EKOSISTEMAK MAPATU, INTERPRETATU ETA AZTERTZEKO MATRIZEA**  
KULTURISISTEMAK kultura- eta sormen-ekosistemak interpretatu, aztertu eta mapatzeko kategorizazio-matrize bat (edo matrize-multzoko bat) proposatzen du. Bere aniztasuna islatu nahi du sektore eta azpisektoreekiko, balio-katearen kate-mailekiko, esparru horretan esku hartzen duten eragileen tipologiarekiko, bai eta funtsezko eraginen eta itzuleren ezaugarriekiko ere.



[www.karraskan.org/en/kultursistema](http://www.karraskan.org/en/kultursistema)

**MEMENTO** [ | carnicería]


“MEMENTO”k Iruñeko memoriari buruzko elkarrizketa bat irekitzen du. Ba al dago bere gizarte-egitura ulertzerik hiria bizi duten gorputzetatik abiatuta? Auzo-bitartekaritzako proiektu artistikoa da. Hiria bizi, eraiki eta eraldatzen duten gorputzetatik eta bere memoria eta orbainetatik abiatuta, Iruñearen irakurketa bat proposatzen du. Tatuajearen jardunaren inguruan egituratzen da, hiriaren nortasuna osatzen duten gorputzen eta emozioen aniztasunaren gainean hausnartzeko gune bat sortzeko helburuarekin.



[www.carniceria.org](http://www.carniceria.org)

**OFFICE ISSUES!** [Issues!]

“issues!” ikerketako eta komunikazio esperimentaleko plataforma bat da. Topaketa birtual eta fisikoen bitartez, elkarrekin bizi garen guneetan eragina duten gai garrantzitsuak ikertu eta partekatzea du helburu nagusi. Plataforma honek gai bat ikertzen du urtean. Xedea da gai horretan sakontzea eta talde mailan dituen ondorioak aztertzea.



[www.issuesoffice.com](http://www.issuesoffice.com)

**POESÍA O BARBARIE** [Masquepalabras Colectivo]

Enhunka gazte biltzen dira hilero poesia entzun eta errezitatzeko. Irudikatu ilun dagoen soto bat eta jakingura duen publikoa. Bertan lau gonbidatu berezik eta mikro irekien txandan hitza hartuko duten espontaneoek kontakizun bat eraikiko dute, non zirrara, pasioa eta abentura protagonista izango baitira. Horrela jaio zen “Poesía o Barbarie”, poeta ausarten, gautxori iraultzaileen, edertasun egarria duten pertsonen eta letrazale oihukarien babesean, hitza ekintza dela sinetsita.



[www.masquepalabras.org/poesiaobarbarie](http://www.masquepalabras.org/poesiaobarbarie)

**VIJOS MUNDOS NUEVOS (Giza Eskubideak Eszenara 2020)** [Asín Sound eta Ados Teatroya]

Denok daukagu gure bizitza berregiteko eskubidea, eta arte-sorkuntzak hau lortzen lagundu dezake eta behar du. Hau aldarrikatzeko, bi kolektibo marjinal eta antzaz harremanik gabekoek elkarrekin egiten dute lan: droga-mendekotasuna dela-eta errehabilitazioan dauden pertsonak eta hiriko bizitza jenderik gabeko herri batekin aldatzen duen familia gazte aitzindarien talde bat. Bi kolektibok, diziplina desberdinetako artistekin batera, ikuskizun eszeniko bat eta artxibo soinudun bat sortzen dute elkarrekin, bazterketa eta aurreiritziak salatuz.



[www.adosteatroya.com/inicio](http://www.adosteatroya.com/inicio)





948 Merkatuak standak ipintzen ditu **erakunde publikoen, enpresen eta kultura antolakuntzen informazioa zabaltzeko**, eta Nafarroako eta beste lurralde batzuetako kultura eta sorkunza industriaren eskaintzaren erakusleihu bihurtzen dira.

Parte har dezakete ikerketa kreatiboko enpresek, teknologia enpresek, ekitaldi antolatzaileek eta kulturarekin lotutako edukien eta zerbitzuen sortzaileek.

## CÍA MAGO HODEI MAGOA

ILUSIONISMO IKUSKIZUNEN EKOIZPENA ETA BANAKETA



Konpainia profesional honek hainbat ekoizpen dauzka ikusgai, euskaraz nahiz gaztelaniaz, eta formatu txikian nahiz handian. Bizitasun handiko ikuskizunak dira, erritmoz beteak, eszenaratze berritzaileekin, eta azken hehetasunera arte zainduak. Heziketa ikuskizunak eta tailerrak ere egiten dituzte. Gainera, adituak dira ekitaldiak pertsonalizatzen, ukitu desberdin bat izan dezaten eta, horrela, luzarago iraun dezaten oroimenean.

Odei Domingo Mendiluce | +34 646 236 649  
info@magohodeimagoa.com · www.magohodeimagoa.com

## CIRCO LA RASPA

KALEKO ANTZERKI ETA ZIRKU KONPAINIA

Zirku eta Kaleko Antzerki Konpainia, 12 urtetik gorako esperientziarekin. Ikuskizun xumeak, zuzenekoak eta dibertigarriak; zirku klasikoa eta familiakoa.

Aragoiko Zirku Ikuskizun Onenaren Saria, 2012: Freak Show. Aragoiko Arte Eszenikoen Errebelazio Saria, 2015.



Román Bometón Tomás | +34 616 926 445  
contratacion@circolaraspa.com · www.circolaraspa.com

## CREANAVARRA

GOI MAILAKO DISEINU  
TITULUAK, UNIBERTSITATE  
MAILAKO HEZIKETA

creanavarra  
centro superior  
de diseño

CreaNavarra Goi Mailako Diseinu Zentroak Nafarroako Gobernuaren baimena du Diseinuko Goi Mailako Arte Ikasketak eskaintzeko, espezialitate guztietan. Eskaintza akademiko hau du: Diseinu Grafikoa, Moda Diseinua, Barne Diseinua, Bideo Jokoen Diseinua eta Sorkuntza eta Animazioa eta VFX.

Eva Beperet | +34 948 291 903 - 609 06 13 37  
ebeperet@creanavarra.es · www.creanavarra.es

## EL PUNTO GUNEA

EL PUNTO GUNEA. NAFARROAKO  
SORMEN ZENTROA  
SORMEN ARTISTIKOKO FABRIKA.  
LAU GUNE, ARTE ESZENIKO ETA  
BISUALEI ESKAINIAK.



Gune bat sorkuntzarako, hezkuntzarako eta artisten eta ikusleen garapen pertsonalerako, arte eszeniko eta bisualen bidez. Sortzaileen arteko trukea eta harremana sustatzen da, eta artisten sormena eta sorkuntza prozesuak bultzatzen dira.

David Lainez | +34 669 796 347  
info@elpuntogunea.com · www.elpuntogunea.com



9:00-15:00ean

## FECED DANCE FROM SPAIN



FECED sarea Dantza konpainia profesionalaz osatutako elkar- teek osatzen dute (PAD, PiedeBa- se eta Emrendo Danza).

Gure helburua da Dantza profesio- nalararen garapena laguntzea Espainian, ikusleak hurbilduz eta dantzaren presentzia segurtatuz jaialdietan zein nazioarte mailan.

info@feced.org · <http://www.feced.org>

## GORAKI KULTURA KUDEAKETA ETA EKOIZPENA



Gorakik era guztietako ikuskizunak eta ekitaldiak egin, antolatu eta ekoiz- ten ditu, osorik edo neurri batean, so- luzio pertsonalizatu eta sortzaileekin. Soluzio teknikoak eta eraginkorrak

bilatzen dituzte kultura proiektuetarako eta eskaintzen dituzten zer- bitzuetarako, eta ekoizpen, soinu, argiztapen eta ikus-entzunezko zer- bitzuetan material propioa eta laguntza tekniko profesionala dituzte. Neurrirako ekitaldiak antolatzen dituzte, giltza eskura, eta gestio guz- tiez arduratzen dira.

Patxi Miranda | +34 678 966 793

Info@goraki.live · [www.gorakilive](http://www.gorakilive)

## RED DE TEATROS DE NAVARRA

TITULARTASUN PUBLIKOKO  
GUNE ESZENIKOEN  
ELKARTEA



RTN-NAS irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, 33 udaletzek osatua, eta gune eszeniko ekipatu bat du, arte eszenikoetako ikuskizun profesio- nalak egin ahal izateko; ikuskizuna dagoen egunetan aretoan lagun- tza teknikoa dago, kultura kudeatzaile profesional bat dute, eta kultura jardueretarako aurrekontua eta programazio erregularra eta egonkorra ditu.

Ramoni López | +34 654 338 452

secretariatecnica@redteatrosnavarra.com · [www.redteatrosnavarra.com](http://www.redteatrosnavarra.com)

## TDIFERENCIA

ANTZERKI EKOIZPENA ETA HEDAPENA



Kalitatezko antzerki ikuskizunak sortzen dituzte, azken xehetasuneraino landutako proposamen eszenikoen bidez. Eskaintza askotariko baten aldeko apustua egiten dute, eta mota guztietako publikoak eta estiloak landu: haurrentzako ikuskizunak (euskaraz eta gaztelaniaz), kabareta eta hel- duentzako proposamenak. Halaber, neurri sortutako antzerki dinami- zazioak eta antzetzutako bisitak egiten dituzte, eta beren gain hartzen dute osoki kultur proiektuen kudeaketa. Eta hori guztia erabat konpro- metiturik emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunarekin, kontziliazioarekin eta tratu txarren kontrako borrokarekin.

Maite Redín Orzaiz | +34 607 929 582

maiteredin@tdiferencia.com · [www.tdiferencia.com](http://www.tdiferencia.com)

## TROKOLO TEATRO

TEATRO IKUSKIZUNEN EKOIZPENA  
ETA BANAKETA



Trokolok euskarazko nahiz gaztelaniazko ikuskizunak ekoizten ditu, bizi-biziak, dibe- rigarriak, adin guztietako ikusleentzat. Adi- tuak dira Klownklusioetan, eta ekitaldiak eta sentsibilizazio kanpainak animatzen dituzte. Haien lanetan hainbat gai jorratzen dituzte: genero berdintasuna, klima aldaketa, kontsumo arduratsua..., Eta terapia ez iza- nagatik, terapeutikoa den tresna bat erabiltzen dute: umorea.

Isabel Aisa Sola | +34 627 935 819

trokoloteatro@gmail.com · [www.trokoloteatro.com](http://www.trokoloteatro.com)



## GOBIERNO DE NAVARRA. DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA

**Nafarroako Gobernuaren Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea Erakundeak** honako arlo hauetako bere lana aurkezten du:

- **Ondare historikoa:** Nafarroako ondare historiko, artistiko, monumental, arkeologiko eta zientifikoa babestu, kontserbatu, katalogatu eta zabaltzea.
- **Ekintza kulturala:** Nafarroako sektore kultural eta artistikoak lagundu eta bultzatzeko programak. 948 Merkatua, Nafarroako arteen merkatua haietako bat da.
- **Museoak:** Museoen plangintza eta Foru Komunitateko museo sistema babestea.
- **Liburutegiak:** kultura, informazioa, prestakuntza eta asti sortzailea eskuratzeko eskubidea demokratizatzea Nafarroako Liburutegien Sarearen bidez.
- **Artxiboak:** Foru Komunitateko liburu, zine eta ikusentzunezko ondarea babestu, kontserbatu, antolatatu eta zabaltzea.
- Nafarroako sektore kulturalaren **plangintza eta garapen** estrategikoa.

Stanean Nafarroako sektore kultural eta artistikoen hainbat ekimen ere egon dira ikusgai.

Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra  
Kultura eta Kirol Departamentua  Departamento de Cultura y Deporte

Servicio de Acción Cultural | +34 848 424 673  
accioncultural@navarra.es · www.culturanavarra.es

## EASD PAMPLONA/IRUÑEKO AGDE

ARTE IRAKASKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOIA

Iruñeko Arte eta Goi Mailako Disenu Eskola ikastetxe publiko bat da, eta artearen inguruko irakaskuntza eskaintza zabaldu du: Arte Irakaskuntzetako Heziketa Zikloak, Arte Batxilergoa, Barne Diseinuko Goi Mailako Ikasketak, Lanbide Heziketa Berezia. Eskolak egunez ematen dira.



Pedro Sorbet Recalde (Eskola zuzendaria) | +34 848 431 310  
ea.pamplona.direccion@educacion.navarra.es  
www.escueladeartepamplona.com

## EURORREGIÓN NUEVA-AQUITANIA EUSKADI NAVARRA

MUGAZ GAINDIKO PROIEKTUEN GARAPENA

Akitania-Berria, Euskadi, Nafarroa Euroeskualdeak lankidetzan indartzeko helburua du, bereziki kultura eta sorkuntza alorrean. Diruz laguntzen ditu Europa Sortzailea programaren baitan sartzen diren euroeskualdeko proiektuak eta #948 Merkatua-ren bidez, kultura eta sorkuntza alorreko euroeskualdeko egiturak elkartzen diren foroa indartu nahi du.



Arola Urdangarin | +34 632 200 813  
www.euroregion-naen.eu

## GOBIERNO VASCO

KULTURAREN SUSTAPENA

Kulturaren Sustapeneko Zuzendaritzak eremu hauetako jarduera profesionala burutzen du Euskal Autonomia Erkidegoan: musika, antzerkia, dantza, liburua, ikusentzunezkoak eta ikusmen-arteak. Funtzio nagusien artean, honako hauek aipatu behar dira: adierazitako eremuetan dauden premiak aztertzea eta horietan Euskadin garatzen den jarduera bultzatzeko, sendotzeko eta hedatzeko egokitzat jotako administrazio-neurriak hartzea.

www.euskadi.eus/gobierno-vasco



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## REGION NOUVELLE AQUITAINE



Akitania berriko politika kulturala fracekin (arte garaikideko eskualde funtsak) eta kultura agentziekin elkarlanean gauzatzen da.

Politika horren oinarri nagusiak erlazionatuta daude lurraldearen garapen kulturalarekin, industria kultural eta digitalarekin, sorkuntza garaikidearen aniztasunarekin eta eskualdeko ondarearen eta hizkuntzen sustapenarekin.

Justine Terrade | + 33 05 57 5 7 86 66  
justine.terrade@nouvelle-aquitaine.fr · https://www.nouvelle-aquitaine.fr

# 948 ART

## CLUB INDARA

### ONGIETORRI EKITALDIA

AZA. 19 [20:30ean]

"Obsimo"

"Bumaye!" **Cabezafuego - Beatriz Sánchez**

## BALUARTE

ERAKUSKETA ARETOA

### PROJECT ROOMS

AZA. 20.21 [10:00-14:00ean/17:00-19:00ean] AZA. 22 [10:00-14:00ean]

"Arrastra líquen" **Elena Aitzkoa**

"Un mix/ Mix Bat" **Miren Doiz**

"The Quivering of the Reed" **Abelardo Gil-Fournier**

"No lo banalices" **Lorea Alfaro**

"Moving Pictures" **Jaime de los Ríos**

"Canción para 22° 33' N 91° 22' O" **Fermin Jiménez Landa**

### PERFORMANCES

AZA. 20 [12:00ean] "Paraíso Terrenal, viene y va" **Elena Aitzkoa**

AZA. 20 [18:00ean] "Cónvexo-convexo" **Led Silhouette**

AZA. 21 [12:00ean] "Me gusta lo que haces pero..." **Alberto Sinpatrón**

AZA. 21 [18:00ean] "Orchard" **Elinor Lewis - Nuria Legarda**

AZA. 21 [12:00ean] "Electrical Body" **Dínamo Danza**

### ERREALITATE BIRTUALA

AZA. 20.21 [10:00-14:00ean/17:00-19:00ean] AZA. 22 [10:00-14:00ean]

"Ones Haptiques" **Daax!**

"The Machine to be Another" **BeAnotherLab**

GANBERA ARETOA

### IKUS-ENTZUNEZKOAK

AZA. 20 [17:00-18:30ean] "Zauria(k) locura. cuerpo. Feminismos" **Iker Oiz - Maier Irigoien - Isabel Sáez**

AZA. 20 [19:00-20:00ean] "Izaro" **Txuspo Poyo**

AZA. 21 [17:00-18:00ean] "Lurralde hotzak" **Iratxe Fresneda**

AZA. 21 [18:30-19:45ean] "592 metroz goiti" | "Urpean lurra" **Maddi Barber**

## ERAKUSTALDIK

BALUARTE. LUNETEA ARETOA

AZA. 20 [19:00-19:45ean] "Post Kosmos, una experiencia sonora" **Peru Galbete - Paula Olaz**

AZA. 21 [18:00-20:00ean] "Falsificaciones genuinas" **Billy Cowie**

AZA. 22 [11:00-11:45ean] "Ocean Breath" **Itziar Okariz**

## ENT-NAE

20 AZA. [21:30-22:45h] "Rebota, rebota y en tu cara explota" **Agnés Mateus - Quim Tarrida**

21 AZA. [21:30-22:30h] "Donde el hielo se rompe" **La Cuerda Teatro - Olatz Beobide**

## TEATRO GAYARRE

ARETO NAGUSIA

AZA. 20 [20:00-21:00h] "Saio Zero" **Bilaka**

AZA. 21 [20:00-21:00h] Triptycho" **Coral de Cámara de Pamplona**

ANFITEATRO ATARIA

AZA. 21 [19:00-19:30ean] "Amico's Planet" **Amico Teatro**

## WALDEN LIBRERÍA CAFÉ

AZA. 20 [19:00-19:40ean] "Libro Rojo" **Roberto Equisoain**

## ZENTRAL

AZA. 20 [21:00-21:45ean] "Eternity be kind" **Myriam Bleau**

AZA. 20 [22:00-22:45ean] "A taste of Nature" **Alba G. Corral - Björt Rúnar**

AZA. 21 [20:00-20:45ean] "Ba-dabiltza" **Martin Etxauri, Txo!?**

AZA. 21 [21:00-21:45ean] "Vanishing Quasars" **Boris Chimp 504**

AZA. 21 [22:00-22:45ean] "Trópico de Covadonga" **Rodrigo Cuevas**





# 948 ART



PROIEKTU ARTISTIKOEN SORTA BAT  
ERAKUSGAI

📍 Elkarrekin lotutako espazio kulturaletan.

🕒 Arratsaldez, azaroaren 20an eta 21ean.



Profesionalentzat eta herritarrentzat  
oro har.

948 Merkatuaren erakustaldi artistikoen programa berrasmatu egin da edizio honetan, **diziplina aniztasunaren** inguruan. **Nafarroako, estatuko eta nazioarteko** proposamen sail bat, ikuspegi zabal eta plural bat ematen duena **sorkuntzari eta berrikuntzari** buruz. Azken batean, eduki askotarikoko proposamenak: teknologia, gizarte erantzukizuna, esperimentazio estetikoa edo, besterik gabe, lengoaia bereziak, ikusleengana, profesionalengana eta herritarrengana hurbildu nahi dutenak.

**948 ART** egitasmoak aukera ematen du hurbiltzeko Nafarroako sorkuntza artistiko iradokitzaile eta erakargarrienera, baita ezagutzeko ere estatuko eta nazioarteko proposamen ez horren ezagunak.

**948 ART** aukera bat da profesionalentzat eta publiko guztientzat, proposamen artistiko erakargarriak eta eskuragarriak, harrigarriak eta originalak ezagutzeko. 948 ART gaurko leiho bat baino zerbait gehiago da:  
**etorkizuna iragartzen du.**

Argazkiak:

1. SAIO ZERO. Bilaka
2. CONCAVO CONVEXO. Led Silhouette
3. LURRALDE HOTZAK. Iratxe Fresneda
4. A TASTE OF NATURE. Alba G. Corral & Björt Rúnars
5. ORCHARD. Elinor Lewis y Nuria Legarda
6. ETERNITY BE KIND. Myriam Bleau
7. THE-MACHINE-TO-BE-ANOTHER. BeAnotherLab
8. TRIPTYCHO. Coral de Cámara de Pamplona

## ERAKUSKETA ARETOA

Hirugarren edizio honetan, 948 ART egitasmoaren **Baluarteko erakusketak** bilduko ditu **performance** multzo bat, **project room**-ak eta **errealitate birtualeko** proiektuak, egungo berrikuntza artistikoaren eta kulturalaren erretratu fidel bat ematen saiatuko direnak.

### PERFORMANCE

### ERREALITATE BIRTUALEKO

### PROJECT ROOMS

- Led Silhouette
- Elinor Lewis - Nuria Legarda

STAGE

Daax!

Fermín Jiménez Landa

Lorea Alfaro

Miren Doiz

Elena Aitzkoa

- Elena Aitzkoa
- Alberto Sinpatron
- Dinamo Danza

Akreditazioak eta Arreta gunea

BeAnotherLab

Jaime de los Ríos

Abelardo Gil-Fournier

AVENIDA DEL EJERCITO

PLAZA DEL BALUARTE

SARRERA Behe solairua



## PROPOSAMEN HAUEK AHANTZI GABE...

19

### ERAKUSKETAK:

**Arte plastiko eta bisualen aldeko laguntzak** Uharteko Arte Garaikidearen Zentroan

📍 Baluarte, Sala Muralla (-2 solairua)

**“Carlos Irijalba. Extemporáneo”**

📍 Nafarroako Museoko kaperan instalatua

**“Oteiza y la estatuaría de Arantzazu, 1950-1969”**

📍 Oteiza Museoa

**“Memoria paralela”,** Hiraki Sawa-ren ikus-entzunezko instalazioak

📍 Nafarroako Unibertsitateko Museoa

### MUSIKAK:

**Salvador Sobral**

📍 Baluarte, Ganbera Aretoa

🕒 Azaroak 23. 20:30ean

**Mikel Erentxun + Gussy.**

📍 Club Indara

🕒 Azaroak 22

Irekitzea: 20:00etan / Kontzertu : 20:30ean.

### IKUSKIZUNAK:

LAVA Dantza konpainia, **“Bending the Walls + Beyond”**

📍 Nafarroako Unibertsitateko Museoa

🕒 Azaroak 22. 19:30ean

Paula Quintana, **“Las alegrías”.**

📍 Nafarroako Unibertsitateko Museoa

🕒 Azaroak 23. 19:30ean

Madame Señorita, **“Question”**

📍 Escuela Navarra de Teatro

🕒 Azaroak 23. 20:00etan



## ANTOLATZEN DUTE



## LAGUNTZEN DUTE



## BABESLEAK

Etxepare Institutoa - NICDO - Nafarroako Antzoki Sarea - Nafarroako Unibertsitate Publikoa - Nafarroako Unibertsitatea - UNED - Akitania-Berria Eskualdea - Akitania-Berriko kultura Sareak OARA eta ALCA - RIM eta ASTRE - Institut Culturel Basque - Communauté d'Agglomération Pays Basque - Baiona Hiria - Département de Pyrénées-Atlantiques - Okzitania Eskualdea - Institut Français de Bilbao.